

Erre  
tretak

Erretretak sistema  
irrixkuan

Maiatza - 2003



**ERRETRETAK  
SISTEMA  
IRRIXKUAN**

**Hausnarketa**



**AURKIBIDEA**

---

<b>Erretreten berrantolaketan jokoan dena</b> .....	<b>6</b>
Argumentu demografikoa araberatu behar da. ....	6
Erretretaren gastu jasangaitzak: arazo faltsu bat. ....	6
Egiazko arazo bakarra politikoa da. Hala nola aberastasunen partekatzea. ....	7
Jardueraren gelditzeko adinaren gibelatzea, partesarien ordaintze denboraren luzapena: onartezinak. ....	8
<b>Pentsio fondoak</b> .....	<b>10</b>
Pentsio fondoek ez dute ezer balio .....	11
Pentsio fondoak arriskutsuak dira .....	11
Erretreta fondoak menturazkoak dira .....	11
Pentsio fondoak ez dira zuzenak eta sozial babesgoaren aitzinean ezberdintasunak haunditu baizik ez ditzakete egin .....	11
Pentsio fondoak, ekonomia kapitalistaren menpekotasunaren bermatzaile eta berrindartzaileak dira baieta sozialki desegileak. ....	12
<b>Zer egin?</b> .....	<b>13</b>



Ba da jakanik zonbait urte kapitalizazioaren bidezko erretreta sistemaren sustatzaileek, erretreten ordaintzeko izanen diren arazo larriak aintzinatuz, gerorako egiten dituzten aurrikusmenak segurrak direla eta proposatzen duten erreforma ezin bestekoa dela sinestarazi nahi digutela.

Gaurregun, martxan jarri nahi dituzten neurri gehienak ezagutzen ditugu :

- 2008garren urtea aintzin, funtzionario eta zerbitzu publikoko guzientzat, kotizazioa 40 urtetara luzatua izanen da.
- 2012garren urtea aintzin, langile guzientzat, kotizazioa 41 urtetara luzatua izanen da.
- 2020garren urtea aintzin, langile guzientzat, kotizazioa 42 urtetara luzatua izanen da.
- Kotizazio osora helduak ez diren langileentzat, « bonus/malus » sistema bideratua izanen da : publikoko langileei, eskas izanen zaien kotizazio urte bakotxarentzat, %eko 3ko apaltzea eta pribatukoei %eko 6ko apaltzea.
- Gaurko erretretadunei, ordezkatzeko tasaren apaltzea : SMIKan zirenentzat, %75a eta %66a besteentzat.

...

Gobernuak prestatu erretreten erreforma MEDEFi egindako opari berrri bat baizik ez da. Badakigu MEDEFek erretreten errepertizio sistemaren desagertzea amesten duela (honek diruz parte hartzera bortxatzen baitu), honen truke kapitalizazioaren sistema martxan emaitako gisan. Honela, partzuerrek, bankuek eta asegurantza konpainia handiek sakelak betetzen ahalko dituzte.

# Erretreten berrantolaketan jokoan dena

---

## Argumentu demografikoa araberatu behar da.

Erretreten berrantolatzeko, molde atzerakoi batez aurkezturiko lehen aitzakia da: kontrako bilakaera demografikoa, hondamendi bat bezala erakutsia den biztanleriaren zahartzea.

Aurreikuspenak: 2040an biztanleriaren %33 a 60 urtez gorakoa izanen da. "95ean 10 aktiborentzat 4 erretretadunetik, 2040ean 10 aktiborentzat 7 erretretadunera pasatzen gara", "Gaur egun, urtero 110 000 erretretara joaite daude; 2009an aldiz, 350 000 izanen dira." (Charpin). Gure erretretadun ezaktiboen ordaintzeko ez dela gehiago aski aktibo izanen diote. Eta ondorioz, murrizketei aurre egiteko prestatu beharko dugula.

Alta, bilakaera demografikoaren goratzeak, 40 urtetan hedatua denez, ez du deus kataklismotik. 1995ean 65 urtez gorakoek biztanleriaren %15a ordezkatzeko zuten; 2005ean, %15.5 a, 2025ean %18.7 a eta 2040ean %27.1 a. Bizkortze adierazgarririk ezagutzen ez duen epe luze-ko tendentzia bat besterik ez da.

**Perspektiba demografikoa behar baino larrituagoak dira.** Preseski, neurtu beharrekoa, geroan, aberastasun ekoizleen gain izanen den karga ekonomiko orokorra da, "aktibo okupatu" kopurua hots. Alta, 2040ean %9 ko langabezia aurreikusten duen Charpin-en hipotesia ezkorra onetsiz, 60 urtez gorakoen eta 20/59 urtekoen erlazioa %88.6 az goratuko da 1995 eta 2040 bitartean, okupatu eta ez okupatu erlazioa %10.5 az emendatuko delarik. Ez du beraz, aktibo okupatu gainera kargak larritze izugarririk izanen.

Enpleguen galdera bistan da, galdera-gako bat da. Enpleguen heinaren arabera, aktiboen gain den karga ekonomikoa arrunt ezberdina izanen da. Langabezia atzeratzen bada, gazteen kopurua gutitzen bada, "ez aktibo" eta "aktibo okupatu" erlazioak ez luke bilakatze nabarmenik ezagutuko heldu diren 40 urteetan.

60 urtez gorakoen emendapena oso-osoan aurkeztua zaigu, sekulan perspektiban ezarri gabe. **Erretreta moldearen geroa perspektiba demografikoez gain beste faktore batzuei lotua da; enplegu eta elkartasun mailako hautu politiko eta sozialen finkatzen da.**

## Erretretaren gastu jasangaitzak: arazo faltsu bat.

Bigarren aitzakia: erretreten gastua jasanezina dela sinetsarazi nahi digute.

Heldu diren 40 urteetan erretreten gastuak hirukoiztuko direla diote. Nahitara ahanzten dute ordea, azken 40 urteetan hamar bider emendatu direla... Hor ere, aurreikuspen txarrenak kontutan hartuz, hala nola Charpinen ustearen, %9ko langabezia 2005erako (Jospinek aldiz enplegu osoaren itzulera 10 urtera finkatzen duelarik!), nazio aberastasunean erretreten parte 4 ttanttoz emendatuko liteke 40 urtetan, gaur egungo BPGaren %12 tik, 2040ean %16 era pasatuz. Oroitarazi behar da, 1950 eta gaur egun artean, erretreten partearen zifra PIBan 2.5 az biderkatu dela. Horrek ez du inongo kataklismorik eragin. Zertarako beraz, horrelako emendapenak jasangaitzak litezke gaur egun? Erretreten finantzatzeko partesarien emenda-

pen bat beharrezkoa balitz, langabetu eta hurrei buruz doazen gastu publiko eta pribatuen beherapenak ordainduko lituzkete.

Nagusien partesarrien %0.4 eko emendapen bat aski liteke, 37.5 urtesariren ondotik 60 urtetan deneri erretreta baten segurtatzeko, baieta lanbide dorpeenetan erretreta hori 55 urtetik aitzina ahalbidetzeko. 40 urteren gain, %0.4 eko emendapen batek, erretretan 5.7 punduko goratzea ekarriko luke BPGan. Konparatzeko, azken 40 urteetan (1959-1999), erretretan pizua 7.7 punduz emendatu da.

Bestalde, heldu diren urteetan, hazkundea azkarrago edo ahulago izan, erretretan finantzapenaren arazoa ezberdinki pausatua izanen da. Charpin txostenak, heldu diren 40 urteentzat urteroko hazkundea %1.7 koa finkatzen du, hots, azken 20 urteetan baino apalagoa (73 eta 96 artean hazkunde tasa %2.1 ekoa izan da); alta, hazkunde neurtu baten hipotesian ere, 2040ean BPGa doblatuko da, gazte eta zahar inaktiboan karga 1.25 ez biderkatuko delarik.

Erretretan gastuen arazoak, aberastasunen eta produktibitatearen hazkundearekin parekatua izan behar du.

### **Egiazko arazo bakarra politikoa da. Hala nola aberastasunen partekatzea.**

Arazoa, ez da aberastasunen sortzeko ahalmena, beraien partekatze gero eta ezberdinuagoa baizik.

Partekatze moldeko erretretan sistemaren oreka, saridunen mailari eta enpleguari lotua da, kotisazioak, hilabetesarietatik hartuak baitira. Azpimarratu behar da, orain arte eremaniko sozial eta ekonomia politikak duela kotisatzaileen masa ahuldu: sari apalak, denbora ez osoa, enplegu prekarioak, enpleguen guttitzea; nagusien karga ezberdinen arintzeak eta batez ere langabezia gehitzen dira (sozial babesarentzat irabazi eskasia 700 miliarretara zifra dezakegu).

Kotisazioak, hilabetesarien arabera kalkulatuak izateak, hilabetesarien edo lanpostuen ttipitzera bultzatzen ditu enpresak. Ekoizturiko aberastasunean hartu beharko liteke beraz, kotisazioen zati bat, finantza irabaziak barne sartuz eta hilabetesariak baieta kotisatzaileen kopurua emendatuko lituzkeen tendentzira itzuli beharko liteke.

Aurkeztuak zaizkigun ekonomia eta demografia saileko sasi-usteetan, faktore erabakior bat erabat gorderik daukate, laneko batez besteko ekoizpenaren emendapena. Alta, azken hau ez da sekulan goratzen gelditu; arazoa ez da beraz, aberastasuna gaur egun eta geroan faltako dela, partekatze lege eta jardupideek kapitalari egiten dioten mesedea baizik. Ondorioz, aldatu behar dira.

Azken hogoi urteetan, hilabetesarien zatia, enpresen balio-gehituan (aberrastun ekoiztua) ez bazen haundizki beheratu (1982 eta 96 artean 69tik %60ra jeitsi zen), lanaren produktibitate %50ez gora emendatzen zelarik, kotisazioen masa -erretretak barne-, gaur egun dena baino %15 gorago izanen zen eta gertatu diren kotisazioen emendapenei muzin egin genezakeen.

**Arazo politikoa, finantza merkatuek eta nagusiek bereganatzen duten produktibitate irabaziarena da.** Gainera, enplegua laguntzeko ordezkaria egiten du. Kotisazioen -zentsu zabalean- (Sari zuzena, pentsioa, lan denbora) eta mozkinen arteko irabazien partekatze

molde berri bat behar da. Erretreten finantza arazoari erantzuteko, urtero, produktibitatearen %0.5 punduko transferentzia bat aski liteke.

Demagun, urtero %2ko produkibite hazkunde bat (pasa den mendean hautemaniko batz bestearen parekoa beraz), erretretak, hilabetesari garbiaren ber erritmoan aitzinaratzea (%0.5eko produktibitatea), asteroko lan denbora 30 ordutara molde neurtuan pasatzea (%0.6eko produktibitatea) eta urtero %0.9ko eros-ahalmenaren aitzinatze orokor bat segurtatzea posible da. Eta hau dena, kotisazioen kostu osoa goratu gabe. Denen eros ahalmena %50ez emendatuko liteke.

Beste finantza iturri batzuk: Parte hartzearen eta interesamenduari baimenduriko fiskal abantail eta kotisazio sozial guziak deuseztu beharko litezke; kotisazioak diren bezalaxe, "stock options" eak zergatu beharko litezke. Hain zuzen ere, erretreten finantzatzeko egin diru ateratzek, sari guzien inposetatik etorri behar litezke, finantza eta jabego kotisazioetatik hasiz.

Bistan dena, erretretentzat sos bat gehiago ezartzearen aurka agertzen da nagusigoa. Enpresen gaineko karga gehigarri bat bakarra ez du onartzen; kotisazioen emendatze oro mehatxugarri liteke, enpresen konpetibitateak lanaren kostua goratuko lukeela dio. Bestalde, erretreten finantzapenari ez, lan denboraren murrizketari ez, baina mozkinentzat gorde nahi dituen produktibitatearen irabazi guziak, gehienak merkatuan kokatzen dituelarik, akziodunen atsegina kriterio bakar bezala hartuz.

Kapitalisazioarekin proposatzen digun gauza, oraino hamarkada anitzez, kotisatzaileek produktibitatearen irabaziak ez hunkitzen segitzea da.

## **Jardueraren gelditzeko adinaren gibelatzea, partesarrien ordaintze denboraren luzapena: onartezinak.**

Nagusigoak, enpresen kotisazio gelditzea eta langileen kotisazio denboraren luzapena nahi du; beraz, langileak denbora gehiago lanean hartzera behartuz: "denbora gehiagor ez badute lan egiten, jendeei ezin diezakegu erretreta sergurtu", " posible den orekatze aldaera bakarra, kotisazioen iraupena da" (Kessler Medef). Pribatuan, 1993az geroztik, partesariak 160 hiruiletara pasa dira 150en ordez (40 urte 37.5en ordez). Charpinek, erregimen guzientzat, kotisazioen luzapena 42.5 urtera pasatzea proposatzen du. Medef-ak, 2025ean 180 hiruiletara luzatzea (45 urte) gomendatzen du.

Erretreta adinaren luzapena, langabeziaren aurkako borrokarekin kontraesan osoan dago, baieta lan denboraren murrizketarekin, baieta gazteak lan munduan sartze gero eta berantagoarekin, baieta estadiak, zenbait urte huntan, erretreta adina ez duten langileetatik bereizteko enpresei dakarren laguntzarekin: beren erretreta 60 urtetan hartzeko eskubidea dutenentarik heren bat oraino lanean ari da, beste bi herenak langabezian daude, RMian, aitzin erretretan, eritasunean edo ezintasunean. Egoera hori hautuzko erabaki baten ondorioa da, lan denbora nagusi saltsan banatua baita; eta nagusigo horrek berak du alde batetik erretreta adina atzeratzera beharresten eta beste aldetik, berak jarraitzen du 50 urtez goitiko langileak langabeziara igortzen.

Gaurko langabezia haundiaren giroan, erretretarako adinaren gibelatzeak ezberdintasun gerta-

erak areago litzake: laneko merkatutik gazteen kanporatzea, laneko denbora haundizki luzatzea eta langile zaharrak adin berean joaitea, baina erretreta murriztu batekin.

Kasu horretan, oraino nekeago liteke, tatsa osoko erretretak behar dituen urtesarietara heltzea. Erretretarako banaketa erregimenen gastuak eta horrelako gutitze batek sortu kezkek pentsio fondoei atea idek liezaieke. Horrela, pentsio heinak murriztuz, pentsio fondo pribatu eta ezberdinkarien hazkundera bultzatzen du Medef-ak.

Nagusigoak bilatzen duena da, banaketa sistemaren oinarriak berak desegitea, erretreta sistematik antolatzen dituzten ezaugarriak aldatuz asurantzak konpainiek finkatu dituztenen arabera (ez dezagun ahantz Kessler dela asurantzak elkarrean frantses federakuntzako lehendakaria, elkarte horiek berek errabiatu behar diren erretretatuen miliarren beha daudelarik pentsio fondok saltzeko): emanen diren pentsioak, aitzinatu kotisazioen metari zorrozki lotzea, erretretadunen bizitzaren iraupen aurreikusari lotzea (neutralitate aktuariala), langileak erretreta kartadun baten logikan sarraraztea. Hori dena, erretretarako banaketa erregimenen printzipiozko elkartasunaren kontra doa, hain justuki, haueri esker banatzen baita produktibitatearen eta ekonomiaren garapenetik sortu aberastasunen gailua.

**Bistan da, erretretadunen kopurua goratuko dela, baina aberastasuna ere bai eta aktiboen hilabetsarien gorapena eta erretretadunei ixuri pentsioena batera segurtatzen ahalko dira. Baina baldintza batekin: aberastasunaren banaketa berri bat zutik emanaz, hilabetsarien eta pentsioen aldera alde batetik eta probetxuen aldera bestetik. Beraz, borroka aferra bat da, klase borrokaren aferra.**

# Pentsio fondoak

---

Banaketa erregimenari lotua dela dio mundu politiko, ekonomiko eta sindikalak.

**Halaere, gobernuak, eskuin eta ezkerreko alderdiek eta sindikatu haundiek, kapitalisazio doi baten sartzea prestatzen ari dute**, printzipioz konplementarioa behar lukeen pentsio fondo sistema bat, diotenez, partekatze sistemaren babesteko eta azkartzeko egina. Pentsio fondoak, "erretreta-aurrezki", "aurrezpen-banaketa", "erretreten hirugarren solairua" edo "beharrezko kapitalisazio doa" izendatzeak ez du ezer aldatzen. Hitzak eztiutak badira ere, printzipioa zinez hor da.

Gobernuak, berriki bideratu duen lansari-aurrezkia kapitalisazioaren logikan sartzen da eta pentsio fondoei bidea idekitzen die. Fondo horien zinezko funtzioa ez da erretreten arazoari erantzutea, baina bai, partekatze moldeko sistemaren bilakaeran eragina ukaitea. Fondo horietarik apur bat aski liteke, partekatze moldeko erretreten aitzinatzea mozteko, haien modalitate-egan eragiteko eta azken batean ahultzeko aitzakia emaitako.

**Haien printzipioa bera ukatu behar da beraz: amor emaitak, modalitate horietako indar harremanen txartzea ekarriko luke.**

Gobernatzaileak pentsio fondoei interesatzen badira, Europak eta nazio arteko merkatu kapitalistak eskatu finantza kriterioei erantzuteko da; beharrezko kotisazio ateratzeak deuseztatu nahi dituzte eta "libreki onartu" kotisazioetara pasatu, hauek Estatuaren konduetan agertuak ez izaiteko abantail handia baitute. Langileek, ordea, kotisazio horiek nahitaez pagatu beharko dituzte erretretaren ukaiteko.

"Ordezkar" diren sindikatuak ere interesatuak dira, "laguntze edo proposamen" moldeko sindikalismo kontzeptuari pentsio fondoan kudeatzea ederki joaiten baitzaio. Horrela, borroka ikuspegi itxura oro desagertzen da klaseen arteko kolaborazioaren abantailetan. Lansari-aurrezkia elkarrekin kudeatzera engaiatu dira; pentsio fondoekin, eskala alda lezakete sos kopuru haundien erabiltzeko.

Beren aldetik, nagusiek eta finantza inguruek, pazientzi haundiaz igurikatzen dute, ahalezko merkatu ikaragarri hortan eskua sartzeko. Beraientzat, pentsio fondoan interesa da, ez gehiago bi kotisatzaile bakarrik izaita (nagusia eta langilea), baina "kotisatzaile-heren" bat gehiago izaita: finantza merkatuak; haiek, boltsaren jokoan kapitalaren sortzea eransten dute: finantza merkatuek ekarpen gehiago egin eta nagusiak guttiago kotisatu behar du. Frantzian, pentsio fondoan sortze nahiak helburu bakar bat du: ordu arte Estatuak eta enpresek jasaiten zituzten finantza arriskuak langileriaren gain ezartzea.

## Pentsio fondoek ez dute ezer balio

Erretretari ixuria litzatekeen aurrezki mota bat dela sinestarazten digute. Alta, erretreta pentsioak, partekatze ala kapitalisazio moldez finantzatua izan, urtean ekoiztu aberastasunetik hartuak dira. Une batean, erretretak beti aktiboek ekoiztuak dituzte.

Ez dute neholako eragin baikorrik egiazko ekonomian. Ipar amerikar adibideak argi erakusten

du, erabiltzen dituzten finantza metek ez dutela ezer aldatu enplegu mailan. Estatu Batuetan pentsio fondoekin, Frantzian pentsio fondo gabe baino enpresa guttiago sortzen da araberan.

### **Pentsio fondoak arriskutsuak dira**

Kapitalisazioa, erretretentzat baztertua den lansari meta berriz hartzeko molde bat baizik ez da eta akzionarigoaren bidez kapitalismora berriz ixurtzeko. Lansari osoaren apaltze bat da, nagusiek beren karga deituak berriz biltzen baitituzte.

Kapitalisazio doi batekin, partekatze moldeko erretretak nahitaez apaldu beharko luke. Partekatzetik kapitalisaziorako pasaiak, kotisazio bikoitza ekarriko luke: gaurko erretretea eta biharko erretretea aurrezki fondoak osatzekoena. Bientzat kotisatzea ezina da. Biztanleriaren zati tiki fagoratuenera eta pentsio fondoei kotisatuko duten enpresei erretretea aurrezkiaren eraikitzea deigarri bihurtzeko, huts egin gabe fiskal abantailak eta kotisazio sozialak onartuko litzaieke. Hori liteke diru publikoa eta pribatua partikatzea erretretea kaltetan. Partekatze sistemarentzat diru iturrien apaltzeak, ondorioz, erretretentzat diru emaitza apalagoak izateak, kapitalisaziora oraino diru gehiago emaitera erakar litzake langileak. Horrela, kapitalisazioak mailaka ordezka lezake partekatzearena.

### **Erretretea fondoak menturazkoak dira**

Kapitalisazioak luzara errentagarritasuna duela erraiten digute. Baina, tituluen metatzea, kontsumitze ontasunen ekoizpena jarraitzen duela sinesteak, merkatuan itsuki sartzea bezala da. Lan ekonomiko erreala baizik ez ditu ontasunak ekoizten: enpleguak sortzea jokabide zuhurrago eta iraunkorragoa da erretretea finantzatzeko, haiek burtsan jokatzea baino.

Kapitalisazioa partikatzea anitzez hausgarriagoa da eta garrantia guttiago eskaintzen du. Partekatze sistema batean erretretarako eskubideak legez garrantizatuak dira, kapitalisazio sistematan aldiz, finantza kapitalaren indartzeak ditu bakarrik garrantizaten, izatez espekulatiboa den kapital mota horri doazkion arriskuekin. Beraz, plazamendu mota horren menturazko izaera ezagutzen dugu (Ipar Amerikako aurrezki kutxen errekaratzea, Enron, etabar...). Fondoek burtsa gaintzen dute eta beraien arteko zoingehiagokak hein espekulatibo batetaraino iganarazten ditu akzioak, ekoiztu aberastasunarekin loturarik batere izan gabe. Horrela, merkatuak erabaki lezake erretretea neurria, ezagutzen diren krisi eta krak-ekin (asiako, brasiliako, mexikako, errusiako... krisiak). Langileak bere erretretea burtsan jokatuko luke eta nehorik ez lezake aurreikus 2040ean haren akzioek balioko dutena. Aldiz, aurreikusten ahal dena da, zaharrak gehiago izanen direnean, bizitzeko, beren akzioak masiboki saldu beharko dituztela eta diruaren balioa apalduko dela, eta ondorioz, beren erretretak.

### **Pentsio fondoak ez dira zuzenak eta sozial babesgoaren aitzinean ezberdintasunak haunditu baizik ez ditzakete egin**

Pentsio fondoek goratzaileek zikoizkeriaren eta bakartasun itsuaren gainean espekulatzen dute erranez "bakotzak beretzat kotisatuko duela".

Horrela bi abiadurako erretreta sistema bati buruz joan gitezke, gaur egun baino anitzez ezberdinagoa. Alde batetik oinarriko erregimen publikoa, ixuri diren erretreten kopurua atxikitze biderik gehiago ez lukeena, pentsio fondoeri baztertuak diren kotisazioengatik, hauek deigarriak izaitzeko fiskal abantailen jabe izan bailitezke; eta bestaldetik, hilabetesari haundiak eta enpresa haundietako langileen artean karrera erregularrak izanen lituzketenak. Pentsio fondoak, aberatsen abantailan baizik ez litezke. Ipar Amerikan adibidez, langileetarik %10en eskutan daude pentsio fondoan 2/3ak. Hilabetesari tipidunak, prekaritatean eta langabetuak direnak baztertuak litezke.

Horrela, hobeki antolatua den apartheid sozial bat gerta liteke: aberatsak behartsuen pisu trabagarritik libratuak litezke.

## **Pentsio fondoak, ekonomia kapitalistaren menpekotasunaren bermatzaile eta berrindartzaileak dira baieta sozialki desagileak.**

Pentsio fondoek bilatzen dutena da, errendimendu gorenak dauden tokian sartzea, sozial, ekologiko... mailatan edozein ondorio txar izanik ere. Langileen kaltetan, beren akziodunak obesitate dituzte (Vilvoorde-n, amerikar pentsio fondoan presiopean, Renault kapitalaren %30en jabeak izanik, enpresa honen zuzendaritzak hetsi zuen lantoki hori eta Pariseko burtsan, Renault akzioaren %17 ko jauziak agurtu zuen erabakia; oroit ere Moulinex eta beste asko afe-retaz).

Pentsio fondoak hartzen dituen langile akziodunak, argi da ez duela inbestizamenduei behatzeko eskubiderik, ondorioz botererik baterez.

Beraz langile akziodunak, langile soilen esplotatzaile bilakatzen dira eta nagusi esplotatzaile eta pozointzaileen finantzak gizentzen ari dira.

Finantza merkatuetara ehunka miliar desbideratuz, pentsio fondoan eraikitzeak espekulazioa hazten du, finantza kapitalak egiazko ekonomiaren gainean duen lopia indartzen du. Eta bide berez plan sozial eta ekonomikoetan dituen ondorio desagileak larriagotzen.

Pentsio fondoan eraikitzeak babesgo sozialaren krisia kalapitatuko du, ontsalaz honen zaintzeko eraikia zelarik.

## Zer egin?

---

Borrokatu behar da, partekatze moldeko erretreta sistemaren zaintzeko, hobetzeko eta zuzenagotzeko. Hain zuzen ere gaurko erretreten sistemak ez gaitu asetzen.

Erretreta sistema ezberdinen artean eta sistema bakoitxen artean, publiko ala pribatu, badira gaur egun ezberdintasun biziki haundiak. Egoera onean direnek asko eskuratzen dute eta nekezian daudenek guttiago. Beraz langileen ezku dago sortu dituzten aberastasunen fruituak eskuratzea eta fruitu horiek zuzenki banaaraztea.

Bestalde, aktiboen eta erretretadunen bizi heinaren batez besteko parekotasuna atxiki behar da. Baieta erretretadunen arteko pobreziaekin bukatu. Gaurko edo biharko erretreta bakar batek ez du SMIGaren petikoa izan behar. Erretretak, prezioen gaineko indexetik kendu behar dira hilabetesarienean gainera pastazeko (lehenago zen bezala

**Belaunaldien arteko elkartasunean finkatua den sistema kontserbatzea garrantzitsua da. Erretreten geroaren erabakitzea ez zaie finantza merkatuei ez eta teknokrateei utzi behar, jendarte osoaren esku atxiki behar da. Erretrekin jendarte eredia da jokoan dena, arazoa politiko eta soziala da eta ez demografikoa edo ekonomikoa.**

Ekonomilariak eta demografialariak dagizkiten aurreikuspenek ez gaituzte asetzen, dakigularik politikoak hauetan finkatzen direla erretreten erreforma prestatzeko. Halabaina, jende horiek denak sistema kapitalistaren barnean jartzen dira, erran nahi baita erretreten arazoa osoki ezberdina den sistema batean planteatzen dutela, esplotazio eta zatiketez egina: gazte/zahar, gizon/emazte, bertako/imigratu. Pentsio fondoek kontra direnek berek ere (ezkerraren ezkerria), kapitalista sistemaren baitan eta haren iraupenean finkatzen diren kontra proposamenak dagizkitez. Erakusten daukute sistema honen barnean, gaurko erretreten sistema bere onean egoiteko edo ontzeko, hobekuntza zorbaitzu aski litezkeela (ehun milaka enplegu gehiago, nagusigoaren kotisazioentzat indar batzu onartuak).

Bistan dena beraien argumentuak garrantzitsuak direla, partekatze moldeko erretreten sistemaren krisiari buruz botereak zabaltzen dituen ideia faltsuei buru egiteko.

**Erretreten arazoa pausatzeak, arazo orokorragoak aipatzera garamatza: Estatuaren eginkizuna, lanarena, ekoizpen motarena, aberastasunen banaketarena, aberastasun horien izaittearen berarena, guretzat hauek ez daitezkeelarik finantza gora-beherekin bakarrik neurtu, BPG-ek dagien bezala.**

Gainera, produktibitate tasa gehituek ez gaitzakete ase erretreten zaintzeko argumentu gisa, ezen ongi baitakigu, hemen eta herrialde pobreenetan, produktibitate emendatzaile horrek zer esplotazio hein adierazten duen. Gisa berean, sistema horrek dakartzan hazkunde eta garapen nozioak ez ditugu gustukoak, zeren eta, hazkunde eta garapen horiek jenedeen eta oreka naturalen desegile baitira.

Bestalde, lanaren eta bizitzaren antolaketa kapitalista ez dugu onartzen ezberdintzailea eta dis-

kriminatzailea delako (lan intelektualak/ eskulana; zuzendari lana/ egile lana; gizon/ emazteen arteko diskriminazioa; gazte/ zahar; "nazionalak"/ imigratuak; inguru pribatua/ inguru kolektiboa; elkargoarentzat lana eta formakuntza/ lana eta bortxatu gabeko formakuntza) eta ordezkobideak gogoetatu nahi ditugulako.

# Karrikarat eraman behar diren aldarrikapen konkretuak

---

## **EZ DEZAGUN ONART :**

- Egitasmo liberalaren funtsa, hots ekoiztua den aberastasunaren banaketa blokatzea, gordetu nahi duten hitzaldi sinplifikatzaile eta alarmistak.
- Kotizazio denboraren luzatzea
- Erretretaren heinaren tipitzea
- Kapitalizazio sistema.

## **IRABAZI DUGUNA DEFENDI DEZAGUN**

- Errepartizio sistemaren atxikitzea, zuzenago bilakaraziz: horien emendatzea, gaur egun dirauten ezberdintasunak ezabatzeke.
- Sistemen harmonizazioa, hala nola: erretretarat partitzea 60 urtetan berantenez (55 urteetan lan nekeentzat) eta 37,5 urte gehienik kotizatu ondoren, arlo publiko eta pribatuko langile guzientzat.
- 1993an hartu neurrien ezabatzea ( 10 urte hoberenak, erretretaren berrebaluaketa hilabetesari gainean karkulatzea)

## **ESKUBIDE BERRIAK LORT DITZAGUN**

- Ordezkatze taxa azkar baten segurtatzea, denak dexenteki bizitzeko gisan.
- Aprestizgo, formakuntza (16urtetik goiti), ikasketak, langabezialdi ez ordainduak... kotizatze denbora bezala kondutan hartzea.
- Erretreta 55 urteetan denentzat, sozial orientabideak alda arazteko indar harreman azkarra sortzen badugu, posible da!

Halere, norberarentzat erretreta hoberenaren aldarrikapenaz harat ,oinarrizko galdera hortan datza: denendako diru iturri zuzen eta duina, “ zahartasun asegurantza unibertsala”, nola eskura?

«Argi uzten dugu gobernamentuak ez duela gibelka eginen,... ez dugu inongo oztoporik onartuko... ez du karrikak gobernatzen...» (RAFFARIN et FILLON, 2003ko maiatzaren 6 eta 7a).

Orain arte, gobernuaren xedea, bere ardatz nagusietan aspalditik prestatua, hitz ederrez jantzia zen : erreforma ez zela eginen, denen adostasunarik gabe...etab... Hemendik goiti, ezin dute horien egiazko egitasmoa gorde . Gobernu MEDEFeko sasi-ordezkar bezala agertzen da eta argi da prestatu erreforma ez dela langileen interesen alde eginen.

**Ondoko asteak garrantzi handikoak izanen dira. Egoera aldatzeko behar den indar harremana eraiki behar da, eta honen lortzeko, mogimendu bateratu eta zabal bat, pribatukoa nahiz publikokoa ezinbestekoa da.**

LAB, 2003 ko maiatzaren 7a